



Euskal Kostaldeko Museoen hilabetea 2020

📅 Ots 26, 2020 🌐 Ekitaldiak, Museoak 💬 0 comments



Gaur aurkeztu da Itsasmuseum-en 2020ko Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea. Martxoan zehar, sareko 23 zentruk 50 ekintzatik gora ospatuko dituzte eta museoetara eta hileko ekintzei buruzko argazki-lehiaketaren bigarren edizioa ospatuko da. **Sagardoetxea Museoak** “Santiagomendiko sagardo bidea esploratuz” bisita gidatua eskainiko du martxoaren 1, 15 eta 29an.

Zortzi urte pasa dira, Basquetourrek bultzatutako “Euskal Kostaldeko turismoaren plan zuzendariaren” baitan, **Euskal Kostaldeko Museoen Sarea** sortu zenetik. Gaur egun sarean 40 ekipamendu gaude, kudeaketa publikoa zein pribatua dutenak. Helburua eskaintza turistiko bati forma eman, baloreak jarri eta kostaldeko eskaintza kulturala zabaltzea zen, bai bertakoentzat, baita Euskadira datozen bisitarientzat ere. Baita ere, museo, interpretazio zentro eta ondare-lekuen kudeatzaileen arteko elkarlanerako aukerak ahalbidetzea.

Gaur, elkarlaneko ekimen horietako bat aurkeztu da: “**Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea**”, Museoen sareak antolatutako ekintza berezien programaren VIII. Edizioa. Martxo osoan zehar garatuko da eta aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzaren

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailaren babesa eta Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Kultura sailen laguntzarekin bere antolakuntzarako.

Programaren aurkezpena **Itsasmuseumean izan da**. Batetik, pixkat berandu bada ere, Sareak iaz betetako **15 urteko ibilbideari** aitortza egiteko, eta ospatzeko. Iaz, sasoi honetan, museoa bere estrategia eta irudia berritzen ari zen eta ezin izan zen aurkezpena bertan egin.

Bestetik, Itsasmuseum-ek une hauetan **Elkanori** buruzko erakusketa bat duelako eta, izan ere, lehen mundu biraren urteurrenari Elkano 500 fundazioak zabaldu duen lema, “Esploratzeko grina”, bere egin du Kostaldeko museoen sareak eta programan nabarituko da.

Aurten **27 ekipamenduk** hartuko dute parte “Hilabetea” eta 50dik gora izango dira antolatutako jarduerak, publiko ezberdin eta zabalari zuzenduak: familientzako tailerrak, haurrentzako jolasak, bisita gidatu bereziak, doako sarrerak, dastaketak, itsasontzian ibilbideak, zuzeneko ikuskizunak, etab. **Egitaraua ikusi**.

Proposamen hauetako batzuk egun ezberdinetan errepikatuko dira, eta hortaz, osotara **100 plan baina gehiago** eskainiko dira martxoaren 1an hasi eta 31 artean.

Aurreko urteko apustuari jarraituz, museo parte hartzaileek esfortzu handia egin dute aurtengo ekintzak ere berezi eta eksklusiboak izan daitezen, besteak beste, esperientzia hauek urtean zehar ezin direlako gozatu. Gainera, jarduera hauetariko gehienak doakoak izango dira eta hala ez direnek prezio, bereziak izango dituzte.

Gainera, Hilabetearen aitzakian, Euskal Kostaldeko Museoen Sareak **Instagram bidezko argazki lehiaketa** martxan ipiniko du martxoan. Gaia: Sareko museoak eta Hilabeteako jarduerak. Hashtag-a, #EuskalKostaMuseoakLehiaketa. Saria Nekatur elkarteak eskaintzen du: Euskadiko landetxe edo nekazalturismo baten asteburua bi lagunentzat.

“Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetearen” egutegia eta programatutako ekimen guztien informazio zehatza nahiz Instagram lehiaketaren oinarriak gaurtik aurrera **www.euskalkostaldekodemuseoak.eus** webgunean egongo da.

2020ko Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea egitaraua PDF formatuan eskuratu.

Bilatzailea

	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Privacidad - Condiciones

Berriak
Ekitaldiak
Erakusketak
Esperientziak
Formazioa
Gastronomia
Historia
Kultura
Lehiaketak
Museoak
Sagardoa
Sagardotegiak
Sagarra
Sagastia
Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea



ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la sidra

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz goatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Sagardo Forum

Jardunaldi teknikoak

Nazioarteko Sagardo Lehiaketa

Emaitzak

Nazioarteko Sagardo Azoka

Izen ematea

Talde teknikoa, hizlariak eta epaileak

Prensa bulegoa

Aurreko edizioak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



© 2020 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

NOR GARA

PROIEKTUAK

AKORDIOAK

KONTRATATZAILEAREN PROFILA

